

# 16

## INGURUMENA

---

### MEDIO AMBIENTE

**Miren Artaraz Miñón (\*)**

---

(\*) **Enpresa Ikasketetako Unibertsitate Eskolako irakasle titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).**  
Profesora titular de la Escuela Universitaria de Estudios Empresariales. Universidad del País Vasco (UPV).

## ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. MARCO DE ACTUACIÓN: POLÍTICA AMBIENTAL
3. DIAGNÓSTICO DE LA EVOLUCIÓN MEDIOAMBIENTAL EN LA C.A. DE EUSKADI
  - 3.1. Consumo de recursos naturales
    - 3.1.1. Agua
    - 3.1.2. Suelo
    - 3.1.3. Energía
    - 3.1.4. Materiales
  - 3.2. Calidad medioambiental
    - 3.2.1. Calidad de las aguas
    - 3.2.2. Calidad del aire
    - 3.2.3. Emisiones de gases de efecto invernadero
    - 3.2.4. Generación de residuos
  - 3.3. Diversidad biológica y paisajes
    - 3.3.1. Especies amenazadas
    - 3.3.2. Paisajes
4. LÍNEAS DE ACTUACIÓN DE LOS AGENTES SOCIALES EN LA GESTIÓN AMBIENTAL
  - 4.1. Administraciones
    - 4.1.1. Recuperación de suelos contaminados
    - 4.1.2. Acciones para la conservación de la biodiversidad y el paisaje
    - 4.1.3. Gestión de residuos
    - 4.1.4. Gestión agroforestal
  - 4.2. Empresas
  - 4.3. Ciudadanía
5. CONCLUSIONES
- BIBLIOGRAFÍA

## AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. JARDUKETA MARKOA: INGURUMEN POLITIKA
3. INGURUMEN BILAKAERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA EUSKAL AE-N
  - 3.1. Natur baliabideen kontsumoa
    - 3.1.1. Ura
    - 3.1.2. Lurzorua
    - 3.1.3. Energia
    - 3.1.4. Materialak
  - 3.2. Ingurumenaren kalitatea
    - 3.2.1. Uren kalitatea
    - 3.2.2. Airearen kalitatea
    - 3.2.3. Berotegi efektuko gasen isurpena
    - 3.2.4. Hondakinen sorkuntza
  - 3.3. Dibertsitate biologikoa eta paisaiak
    - 3.3.1. Arriskuan dauden espezieak
    - 3.3.2. Paisaiak
4. HERRI ERAGILEEN LAN ILDOAK INGURUMEN KUDEAKETAREN ARLOAN
  - 4.1. Administrazioak
    - 4.1.1. Lurzoru kutsatuen berreskurapena
    - 4.1.2. Biodibertsitatea eta paisaia babesteko ekintzak
    - 4.1.3. Hondakinen kudeaketa
    - 4.1.4. Nekazaritza eta basozaintzako kudeaketa
  - 4.2. Enpresak
  - 4.3. Herritarrak
5. ONDORIOAK
- BIBLIOGRAFIA

## 1. INTRODUCCIÓN

El desarrollo económico y social proporciona a la sociedad calidad de vida y comodidad en muchos aspectos, pero el proceso de industrialización producido durante las últimas décadas ha supuesto también una importante presión sobre el medio ambiente que se ha traducido en graves impactos y problemas relevantes y preocupantes como las emisiones de gases de efecto invernadero (GEI), la progresiva artificialización del suelo, la degradación de los ecosistemas, la destrucción de la biodiversidad, la contaminación de recursos hídricos, el agotamiento de recursos naturales no renovables, el consumo de recursos naturales renovables por encima de la tasa de regeneración o la excesiva generación de residuos.

Dado que esta presión es derivada de la actividad humana, se hace cada vez más evidente la necesidad de dar los pasos necesarios para invertir estas tendencias y hacer frente a dicha problemática. Es preciso considerar el medio ambiente como elemento clave de la calidad de vida de las personas, ya que el papel de la naturaleza y la importancia de su regeneración para el mantenimiento de nuestro bienestar es una cuestión básica. En este sentido, la concienciación social va en aumento. Tal y como se deduce de los datos del *Ecobarómetro Social 2011* (IHOBE, 2011), se aprecia una preocupación social cada vez mayor: el 85% de la población vasca se muestra muy o bastante preocupada por el medio ambiente.

Esta mayor concienciación es fiel reflejo del desarrollo durante los últimos años de políticas que tratan de minimizar el impacto de la actividad humana en el medio ambiente. A nivel comunitario, una de las herramientas que marcan las pautas en el camino hacia la sostenibilidad es la *Estrategia Europa 2020* (Comisión de las Comunidades Europeas, 2010), planteando la lucha contra el cambio climático como uno de los objetivos emblemáticos –junto a la inversión en I+D, educación, tasa de empleo y reducción de la pobreza– que debe perseguir la sociedad. En la C.A. de Euskadi, cabe destacar el desarrollo del *II Programa Marco Ambiental 2007-2010* (Gobierno Vasco, 2007a) que establece las herramientas y acciones a desarrollar relacionadas con el ámbito medioambiental. Asimismo, en junio de 2009 fue aprobada la *Estrategia Eco-Euskadi 2020* (Gobierno Vasco, 2011b), con la finalidad de que la sociedad vasca avance hacia la sostenibilidad y hacia un nuevo modelo de crecimiento.

La principal oportunidad para la C.A. de Euskadi durante la próxima década es producir más bienestar usando más recursos humanos y menos recursos naturales, mediante el *III Programa Marco Ambiental 2011-2014* (Gobierno Vasco, 2011a). El desacoplamiento del crecimiento económico respecto del uso de los recursos y de la contaminación es absolutamente esencial para lograr un desarrollo sostenible. Puede y debe darse una transformación que reduzca el uso de los recursos naturales, incrementando su productividad, y de este modo generar menores impactos ambientales en to-

## 1. SARRERA

Garapen ekonomiko eta sozialak gizarteari bizi kalitatea eta erosotasuna ematen dizkio alderdi askotan, baina azken hamarkadetan izandako industrializazio prozesuak presio handia ekarri dio ingurumenari; horrek eragin larriak eta arazo handiak sorrarazi ditu, hala nola berotegi efektuko gasen isurpena, luraren etengabeko artifizializazioa, ekosistemen degradazioa, biodibertsitatearen hondamena, ur baliabideen kutsadura, berriztagarriak ez diren natur baliabideen agorpena, natur baliabide berriztagarrien kontsumoa birsorkuntza tasaren ginetik edo hondakinen gehiegizko sorkuntza.

Presio hori giza jardueraren ondorioa denez gero, gero eta garbiago dago joera horiek alderantzizatzeko eta problematika horri aurre egiteko beharrezko urratsak eman behar direla. Behar-beharrezkoa da ingurumena pertsonen bizi kalitatearen elementu giltzarritzat hartzea; izan ere, naturaren zeregina eta beraren birsorkuntzaren garrantzia oinarritzakoak dira, gure ongizateari eutsi ahal izateko. Ildo horri jarraituz, gizarte kontzientziatioa gero eta handiagoa da. 2011ko *Ekobarometro Sozialaren* datuetatik (IHOBE, 2011) ondorioztatzen den bezala, gero eta gizarte kezka handiagoa antzematen da: Euskal Aeko biztanleriaren % 85 oso edo nahiko kezkatuak dago ingurumena dela eta.

Gero eta kontzientziatio handiago hori giza jarduerak ingurumenean duen inpaktua minimizatzen saiatzen diren azken urteotako politiken garapenaren isla argia da. Europar Batasunari dagokionez, iraunkortasunerantzko bidean jarraibideak zehazten dituzten lanabesetarikoa bat *Europa Estrategia 2020* da (Europar Erkidegoetako Batzordea, 2010); agiri honetako helburu enblematikoetarikoa bat da gizarteak klima aldaketaren kontra bultzatu beharreko borroka –I+Gn, hezkuntza, enplegu tasan eta pobrezia murrizketan egin beharreko inbertsioarekin batera–. Euskal AEn nabarmendu beharra dago 2007-2010 aldirako *II. Ingurumeneko Esparru Programaren* garapena (Eusko Jaurlaritza, 2007a), bertan ingurumenarekin zerikusia duten eta horri begira garatu behar diren lanabesak eta ekintzak ezartzen baitira. Halaber, 2009ko ekainean, *Eko-Euskadi Estrategia 2020* (Eusko Jaurlaritza, 2011b) onetsi zen, euskal gizarteak iraunkortasunerantz eta hazkunde eredu berri baterantz aurrera egin dezan.

Datorren hamarkadan Euskal AEk izango duen aukera nagusia ongizate handiagoa ekoiztea da giza baliabide gehiago eta natur baliabide gutxiago erabiliz, betiere 2011-2014 aldirako *III. Ingurumeneko Esparru Programaren* bitartez (Eusko Jaurlaritza, 2011a). Hazkunde ekonomikoa baliabidearen erabilerrari eta kutsadurari loturik ez egotea funtsezkoa da, garapen iraunkorra lortzeko. Natur baliabideen erabilera murriztuko duen eraldaketa behar da, baliabideen ekoizgarritasuna handituz eta, gauzak horrela, sektore ekonomiko guztietan ingurumen inpaktu txikiagoak sortuz produktuen eta zerbitzuen

dos los sectores económicos y a lo largo de todo el ciclo de vida de los productos y servicios. Un consumo responsable de recursos supone la reducción de la generación de contaminantes y vertidos al medio y el mantenimiento de los recursos renovables al garantizarse las tasas de renovación naturales.

El objetivo del presente capítulo es conocer la realidad y evolución reciente de las principales cuestiones relacionadas con el medio ambiente en la C.A. de Euskadi. Para ello, se analizan en primer lugar los aspectos más relevantes de la política ambiental comunitaria y vasca para presentar a continuación el análisis de los principales datos ambientales de esta comunidad.

bizitzaren ziklo osoan. Kontsumo arduratsu batek berekin dakar kutsagarrien sorkuntza eta ingurumenera doazen isurpenak murriztea eta baliabide berriztagarriei eustea, natur berriztapen tasak bermatzen baitira.

Kapitulu honen xedea da Euskal A Eren ingurumenarekin zerikusia duten gai nagusien errealitatea eta azken aldiko bilakaera ezagutzea. Horretarako, bada, lehenengo eta behin batasuneko eta erkidegoko ingurumen politikaren alderirik nabarmenenak aztertzen dira, eta, ondoren, erkidegoko ingurumen datu nagusien azterketa aurkezten da.

## 2. MARCO DE ACTUACIÓN: POLÍTICA AMBIENTAL

Dado que la política ambiental vasca responde a los ejes marcados por la Unión Europea en materia de desarrollo sostenible para dar respuesta a las actuales tendencias ambientales comunitarias, en primer lugar se analizan cuáles son las principales tendencias de la política ambiental comunitaria. A lo largo de las últimas décadas, los diferentes hitos acaecidos tanto a nivel internacional como comunitario han supuesto la incorporación de cuestiones medioambientales cada vez con mayor profundidad en la reglamentación y políticas de la Unión Europea. Los antecedentes de la consideración del medio ambiente en el ámbito comunitario se remontan a 1972, cuando se celebraron la Conferencia de las Naciones Unidas sobre Medio Ambiente Humano y la Cumbre de París. En ambos acontecimientos se reconoció la necesidad de la protección del medio ambiente y los recursos para la consecución del crecimiento económico y supusieron, por tanto, el punto de partida de la política ambiental comunitaria. Desde entonces, dicha política ha girado en torno a una serie de Programas de Acción que sirven como referencia a los Estados miembros y las autoridades locales a la hora de elaborar la política medioambiental. El *Sexto Programa de Acción 2002-2012* (Comisión de las Comunidades Europeas, 2001a) concretó la componente ambiental en la *Estrategia para un Desarrollo Sostenible de la Unión Europea* (Comisión de las Comunidades Europeas, 2001b) aprobada en 2001. Esta estrategia está basada en la creación de las condiciones necesarias que garanticen la eficacia de las actuaciones y el establecimiento de los objetivos prioritarios, así como los mecanismos de análisis y seguimiento de los avances logrados. Dichos objetivos, que a su vez han determinado las prioridades para la acción, son los siguientes: (1) actuar en una amplia gama de políticas mediante un enfoque global y transectorial, (2) limitar el cambio climático e incrementar el uso de energías limpias a través de medidas fiscales y económicas, (3) responder a las amenazas a la salud pública garantizando la seguridad y calidad de los alimentos, (4) gestionar de manera más responsable los recursos naturales desvinculando el crecimiento económico del uso de recursos y la generación de residuos y (5) mejorar el sistema de transportes y la ordenación territorial para transferir el uso del transporte por carretera a otros tipos de transporte y desvincular el transporte del crecimiento del PIB.

Las revisiones de esta estrategia realizadas en 2005, 2007 y 2009 llevaron a los Estados miembros a plantear una serie de retos clave que debían abordarse para que la Unión Europea continuase en el camino hacia el desarrollo sostenible, manteniendo paralelamente sus niveles de prosperidad y bienestar. La principal herramienta para hacer frente a estos desafíos fue la *Estrategia Europa 2020*, una estrategia de economía social de mercado para la próxima década que plantea un crecimiento que cumpla tres características: *inteligente*, con el fin de que desarrolle una economía basada en el conocimiento y la innovación; *sostenible* o eficiente en términos de recursos e *integrador*, que estimule altos niveles de empleo que garanticen la cohesión económica, social y territorial. Para llegar a ese crecimiento, la energía y el cambio climático son uno de los cinco objetivos emblemáticos identificados. En este sentido, se propone alcanzar el «objetivo 20-20-20»: reducir las emisiones de gases de efecto invernadero al menos un 20% respecto a los niveles de 1990, incrementar el uso de las fuentes de energía renovables en el consumo final de energía hasta un 20% y aumentar un 20% la eficacia ener-

## 2. JARDUKETA MARKOA: INGURUMEN POLITIKA

Euskal AEko ingurumen politikak Europar Batasunak garapen iraunkorraren arloan zehaztutako ardatzei erantzuten die, batasuneko gaur egungo ingurumen joerei erantzuna emateko; horren ondorioz, lehendabizi aztertzen da zeintzuk diren batasuneko ingurumen politikaren joera nagusiak. Azken hamarkadetan, bai batasunean bai nazioartean izandako gertaerek eragin dute Europar Batasuneko arautegietan eta politiketan ingurumen gaiak txertatu izana gero eta sakonago. Batasunean ingurumena aintzat hartzeko aurrekariak 1972an daude, urte horretan Nazio Batuek giza ingurumenari buruzko konferentzia egin baitzuten eta Parisko gailurra. Bi biltzar horietan ingurumena eta hazkunde ekonomikoari begirako baliabideak babesteko premia onartu zen; horiek izan ziren batasuneko ingurumen politikaren abiapuntuak. Orduetik hona politika hori zenbait ekintza programaren arabera egituratu da; programok estatukideei eta toki agintaritzei erreferente gisa balio izaten diete, ingurumen politika aurrera eramateko orduan. *2002-2012 Seigarren Ekintza Programak* (Europar Erkidegoetako Batzordea, 2001a) ingurumen osagaia zehaztu zuen 2001ean onetsitako *Europar Batasuneko Garapen Iraunkorrerako Estrategian* (Europar Erkidegoetako Batzordea, 2001b). Estrategia hori jarduketen eraginkortasuna bermatzen duten beharrezko baldintzak sortzean eta lehentasunezko helburuak ezartzean datza, bai eta lortutako aurrerapenak aztertzeo eta jarraitzeo mekanismoak jartzean ere. Ekintzarako lehentasunak ere zehazten dituzten helburu horiek honako hauek dira: (1) politika sorta zabalean jardutea sektore arteko ikuspegi global baten bitartez, (2) klima aldaketa mugatzea eta energia garbier erabilera handitzea neurri fiskal eta ekonomiko baten bitartez, (3) osasun publikorako mehatxuei erantzuna ematea elikagaien segurtasuna eta kalitatea bermatuz, (4) natur baliabideak modu arduratsuegoan kudeatzea, hazkunde ekonomikoa baliabideen erabilerari eta hondakinen sorkuntzari lotu gabe eta (5) garraio sistema eta lurralde antolamendu hobetzea, errepidetiko garraioaren erabilera bestelako garraio bide mota batzuetara aldatzeko eta garraioa BPGren hazkunderari ez lotzeko.

Estrategia hau 2005, 2007 eta 2009an berrikusi zen; horren ondorioz, estatukideek abian jarri beharreko erronka giltzarri batzuk mahaigaineratu zituzten, Europar Batasunak garapen iraunkorrerantzko bidean jarrai zezan, betiere aldi berean bere oparotasun eta ongizate maila eutsiz. Erronka horiei aurre egiteko lanabes nagusia *Europa Estrategia 2020* izan zen; merkatuko gizarte ekonomiaren estrategia hori hurrengo hamarkadari begira dago eta hiru ezaugarri izango dituen hazkunde proposatzen du: hazkunde *zentzuduna*, jakintzan eta berrikuntzan oinarritutako duen ekonomia bat garatu ahal izateko; *iraunkorra* edo eraginkorra, baliabideei begira, eta *integratzailea*, hau da, enplegu maila handiak suspertuko dituen ekonomi, gizarte eta lurralde kohesioa bermatuz. Hazkunde hori erdiesteko, energia eta klima aldaketa soil-soilik dira identifikaturiko bost helburu nabarmenatariko bat. Ildo horri jarraituz, «20-20-20 helburua» lortzea proposatzen da: berotegi efektuko gasen isurpena gutxien-gutxienik % 20 murriztea 1990ko mailen aldean, energia berriztagarrien iturrien erabilera % 20raino handitzea energiaren azken kontsumoan eta eraginkortasun energetikoa % 20 handitzea. Ikuspegi ho-

gética. Este enfoque ayudará a la Unión Europea a prosperar en un mundo con pocas emisiones de carbono y recursos limitados y al mismo tiempo impedirá la degradación del medio ambiente, la pérdida de biodiversidad y un uso no sostenible de los recursos.

Estas tendencias de la política ambiental comunitaria determinan la política ambiental aplicada en la C.A. de Euskadi. El origen de dicha política se encuentra en la Ley 16/1994 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, creada con el fin de establecer un régimen jurídico para la conservación de los recursos naturales. Posteriormente, la Ley 3/1998 General de Protección de Medio Ambiente se convirtió en el nuevo marco de política ambiental. Fruto de esta ley, la política ambiental vasca se ha plasmado cada cuatro años en *Programas Marcos Ambientales* que a su vez concuerdan con la *Estrategia de Desarrollo Sostenible de Euskadi 2002-2020* aprobada en junio de 2009 mediante la Declaración de Urdabai –también conocida como Eco-Euskadi 2020–, cuya misión es establecer las metas ambientales que debe alcanzar la sociedad vasca, de modo que garantice la consecución de un nivel óptimo de calidad de vida para la generación actual sin poner en peligro el bienestar de las generaciones futuras. El *I Programa Marco Ambiental 2002-2006* (Gobierno Vasco, 2002) estableció los objetivos integrando las consideraciones económicas, medioambientales y sociales. El *II Programa Marco Ambiental 2007-2010* trató de impulsar un cambio ambiental a largo plazo, en 2020, con la definición de unos compromisos concretos y ambiciosos a corto plazo –en 2010–. El principal objetivo de este programa es establecer las directrices de actuación en materia de sostenibilidad, y está conformado por 11 objetivos estratégicos y 44 compromisos diseñados para conseguir cinco metas, en coherencia con el Sexto Programa de Acción comunitario en materia medioambiental: (a) garantía de un aire, agua y suelos limpios y saludables, (b) gestión responsable de los recursos naturales y de los residuos, (c) protección de la naturaleza y la biodiversidad, (d) equilibrio territorial y movilidad y (e) limitación de la influencia en el cambio climático.

De cara al futuro, el *III Programa Marco Ambiental*, que abarca el periodo 2011-2014, plantea 6 objetivos estratégicos, 17 objetivos operativos y una serie de medidas concretas en 57 líneas de actuación asociadas a los objetivos para hacer frente a los retos identificados en la Estrategia Eco-Euskadi 2020. El principal objetivo de Eco-Euskadi 2020 consiste en dirigir la acción política para que la C.A. de Euskadi sea ecoeficiente, innovadora y económicamente competitiva, socialmente corresponsable y comprometida con los bienes y recursos que forman parte de su patrimonio natural. Se plantean para ello nueve objetivos estratégicos, de los cuales cuatro están muy estrechamente relacionados con la sostenibilidad ambiental: (1) posicionar la C.A. de Euskadi como una economía innovadora, competitiva, ecoeficiente y abierta, (2) preservar nuestros recursos naturales y biodiversidad abordando una ordenación respetuosa y equilibrada del territorio, de las infraestructuras, los equipamientos y las viviendas, (3) minimizar la dependencia energética frente a las energías de origen fósil y mitigar las emisiones de gases de efecto invernadero y los efectos del cambio climático y (4) desarrollar un modelo de movilidad integrada más sostenible que facilite la vertebración en el interior del territorio y la conexión con el exterior en mejores condiciones de competitividad. A través del tercer objetivo, al igual que sucede a nivel comunitario, el cambio climático es reconocido como un problema ambiental, económico y social de primera magnitud, evidenciando la necesidad de una política de acciones orien-

rrek Europar Batasunari lagunduko dio karbono isurpen gutxiko eta baliabide mugatuko mundu batean aurrera egiten eta, aldi berean, horrek ingurumena hondatzea saihestuko du, bai eta biodibertsitatea galtzea eta baliabideak modu ez-iraunkorrean erabiltzea ere.

Batasuneko ingurumen politikaren joera horiek ezinbestean zehazten dute Euskadiko AEn aplikatzen den ingurumen politika. Politika horren jatorria Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legean dago; izan ere, lege hori sortu zen natur baliabideak kontserbatzeko araubide juridiko bat ezar zedin. Horren ondoren, Ingurumena Babesteko 3/1998 Legea ingurumen politikaren marko berria bihurtu zen. Lege horren emaitza gisa, erkidegoko ingurumen politika lau urterik behin islatu da *Ingurumeneko Esparru Programetan*. Azken horiek, era berean, bat datoz Urdaibaiko Adierazpenaren bidez (Eko-Euskadi 2020 gisa ere ezaguna dena) 2009ko ekainean onetsitako *Garapen Iraunkorrerako Euskadiko 2002-2020 Estrategiarekin*; estrategia horren misioa da euskal gizarteak lortu beharreko ingurumen helburuak ezartzea, gaur egungo belaunaldiarentzako bizi kalitateko maila hobezin baten lorpena bermatuz, betiere etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri barik. Lehenengo *Ingurumeneko 2002-2006 Esparru Programak* (Eusko Jaurlaritzak, 2002) helburuak ezarri zituen ekonomi, ingurumen eta gizarte kontsiderazioak bateratuz. Bigarren *Ingurumeneko 2007-2010 Esparru Programa* epe luzerako ingurumen aldaketa bultzatzen ahalegindu zen, (2020. urteari begira), betiere epe laburrean (2010era) anbizio handiko konpromiso zehatzak definituz. Programa horren xede nagusia da iraunkortasunaren gaian jarduketak jarraibideak ezartzea; horretarako, bada, 11 helburu estrategiko ditu eta 44 konpromiso, horiek guztiak bost xede lortzeko diseinatuak, betiere ingurumenari buruzko Batasunaren Seigarren Ekintza Programarekin bat etorritz: (a) aire, ur eta lur garbi eta osasungarrien bermea, (b) natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua, (c) naturaren eta biodibertsitatearen babesa, (d) lurralde oreka eta mugikortasuna eta (e) klima aldaketako eragina mugatzea.

Etorkizunari begira. *III. Ingurumeneko Esparru Programak*, 2011tik 2014ra bitartekoak, 6 helburu estrategiko proposatzen ditu, 17 helburu operatibo eta hainbat neurri zehatz, betiere Eko-Euskadi Estrategia 2020an identifikatutako erronkei aurre egiteko helburuei lotutako 57 jarduketara ildotan. Eko-Euskadi Estrategia 2020aren xede nagusia da honakoa da: ekintza politikoa zuzentzea Euskal AE ekoeraginkorra, berritzailea eta, ekonomia aldetik, lehiakorra izan dadin, bai eta, gizarte aldetik, arduratsua eta, bere natur ondarearen zati diren ondasun eta baliabideekin, konprometitua ere. Hori erdiesteko, bederatzi helburu estrategiko proposatzen dira; horietariko lau oso hertsiki lotzen zaizkio ingurumen iraunkortasunari: (1) Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki gisa kokatzea, (2) gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea lurraldean, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak modu orekatuan antolatuz, (3) mendetasun energetikoa minimizatzea jatorri fosileko energiegi dagokienez eta berotegi efektuko gasen isurpena eta klima aldaketaren ondorioak apaltzea eta (4) mugikortasun integratuaren eredu iraunkorragoa garatzea lurraldearen barnealdeko egituraketa eta kanpoaldearekiko lotura erratuz lehiakortasun baldintza hobee-tan. Batasunaren mailan gertatzen den bezala, hirugarren helburuaren bitartez, klima aldaketa garrantzi handiko ingurumen, ekonomi eta gizarte arazotzat hartzen da; horrek ageri-agerian jartzen du fenomeno horren kontrako borrokara zuzendutako ekintzen politika baten premia. 2011ko maiatzean *Klima Aldaketari buruzko Euskal Legearen* proiektua

tadas a la lucha contra ese fenómeno. En mayo de 2011 fue aprobado el proyecto de *Ley Vasca de Cambio Climático*, que consta de 35 artículos y que reúne directrices en dos sentidos: reducción de las emisiones de CO<sub>2</sub> y adaptación a las consecuencias del cambio climático. El cambio climático se constituye así como eje fundamental de la acción de la administración vasca en materia medioambiental.

Para conocer el estado del medio ambiente, la evolución de los principales indicadores medioambientales y los avances de la política ambiental vasca en el cumplimiento de los compromisos establecidos en los Programas Marcos Ambientales, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco publica anualmente un informe de indicadores y un informe del estado del medio ambiente cada cuatro años. En el informe de indicadores correspondiente a 2009 (IHOBE, 2010) se presentaron las principales tendencias correspondientes a los 44 compromisos del II PMA y se concluyó que el 57% de ellos evolucionan positivamente (los relativos al aire, agua, suelo, energía, residuos, territorio, emisiones de GEI y adaptación al cambio climático), el 14% presentaban avances insuficientes (mantenimiento de la biodiversidad) y el 11% evolucionaron negativamente (consumo de recursos naturales y movilidad).

El papel de las autoridades locales en el camino hacia la sostenibilidad es clave, dado que para la consecución de los objetivos establecidos a nivel comunitario, son éstas las responsables de la creación, el funcionamiento y el mantenimiento de la infraestructura económica, social y ecológica, la supervisión de los procesos de planificación y el establecimiento de las políticas y reglamentaciones locales. A nivel foral, en 2011 se aprobaron el *Plan Estratégico de Desarrollo Sostenible del Territorio Histórico de Álava 2011-2015* (Diputación Foral de Álava, 2011), el *Programa Bizkaia 21. Estrategia para el Desarrollo Sostenible 2011-2016* (Diputación Foral de Bizkaia, 2011) y la *Estrategia Gipuzkoa 2020-2030* (Diputación Foral de Gipuzkoa, 2011). El plan estratégico de Álava está compuesto por 31 líneas estratégicas, 73 programas y 215 actuaciones y el de Bizkaia lo integran 34 líneas estratégicas, 93 objetivos y 332 actuaciones. Ambos planes tienen como principal objetivo integrar el concepto de desarrollo sostenible en todos los departamentos y actuaciones que desarrollen las Diputaciones y apoyar a las partes interesadas en el cumplimiento de los diez compromisos de Aalborg+10. Uno de los seis retos colectivos que propone la estrategia de Gipuzkoa, con un horizonte a más largo plazo, es el de lograr una transición energética, territorial y ambiental que certifique una apuesta total hacia la sostenibilidad, siendo la movilidad sostenible y el uso de energías renovables dos de sus proyectos estratégicos. Cabe destacar también que las Diputaciones son las administraciones públicas que realizan la mayor parte del gasto medioambiental en la C.A. de Euskadi (31,3% del total en 2008).

En el ámbito municipal, la herramienta más destacable empleada por las autoridades es la *Agenda 21 Local*, con la que se persigue la implicación de los distintos agentes socioeconómicos en la identificación, valoración, prevención y corrección de los problemas ambientales y sociales del municipio. Los municipios y las comarcas deben promover y desarrollar *Planes de Acción Locales*, elementos vertebradores de las Agendas 21 Locales que se articulan mediante un conjunto de objetivos a lograr y acciones a ejecutar.

El foro de coordinación que desde 2002 dinamiza e impulsa las Agendas 21 Locales es *Udalsarea 21*, la Red Vasca de

onetsi zen; lege horrek 35 artikulua eta bi motatako jarraibideak ditu: CO<sub>2</sub>ko isurpenak murriztea eta klima aldaketaren ondorioetara egokitzea. Hartara, klima aldaketa euskal administrazioaren ekintzaren funtsezko ardatz bihurtzen da ingurumen gaitan.

Ingurumenaren egoera, ingurumen adierazle nagusien bilakaera eta, Ingurumeneko Esparru Programetan ezarritako konpromisoak betetz, euskal ingurumen politikaren aurrerapenak ezagutarazteko asmoz, Eusko Jaurilaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak urtero-urtero ematen du argitara adierazleei buruzko txosten bat, bai eta, lau urterik behin, ingurumen egoerari buruzko txosten bat ere. Horrela bada, 2009. urteari dagokion adierazleei buruzko txostenaz denaz bezainbatean (IHOBE, 2010), II. IEPren 44 konpromisoei dagozkien joera nagusiak aurkeztu ziren eta ondorioztatu zen horien % 57en bilakaera positiboa dela (aireari, urari, lurriari, energiari, hondakinei, lurraldeari, berotegi efektuko gasen isurpenei eta klima aldaketarako egokitzapenari buruzkoak), % 14k aurrerapenak bai baino ez nahikoak izan dituztela (biodibertsitateari eustea) eta % 11ren bilakaera negatiboa izan zela (natur baliabideen kontsumoa eta mugikortasuna).

Toki agintaritzek iraunkortasunerantz egin beharreko aldaketan daukaten zeregina giltzarria da; izan ere, batasunaren mailan ezarritako helburuak lortzeko, toki agintaritzak dira ekonomi, gizarte eta ekologi azpiegituren sorkuntza, funtzionamendu eta mantenimenduz arduratzen direnak, planifikazio prozesuak ikuskatzen dituztenak eta toki politikak eta arautegiak ezartzen dituztenak. Foru Aldundiei dagokienez, 2011n honako hauek onetsi ziren: *Arabako Lurralde Historikoko Garapen Iraunkorrerako Plangintza Estrategikoa* (Arabako Foru Aldundia), *Bizkaia 21 Egitasmoa. Garapen Iraunkorrerako 2011-2016 Estrategia* (Bizkaiko Foru Aldundia, 2011) eta *Gipuzkoa 2020-2030 Estrategia* (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011). Arabako plangintza estrategikoan 31 ildo estrategiko daude, 73 programa eta 215 jarduketa, eta Bizkaikoan 34 ildo estrategiko, 93 helburu eta 332 jarduketa. Bi plangintzen helburu nagusia da garapen iraunkorraren kontzeptua aldundiek garatutako jarduketa eta sail guztietan txertatzea eta Aalborg+10ren hamar konpromisoak betetzeko interesa dutenei laguntzea. Gipuzkoako estrategiak proposatzen dituen sei erronka kolektiboetarikoa bat da (epe luzeago bati begira) iraunkortasunaren aldeko apustu osoa bermatzen duen energi, lurralde eta ingurumen trantsizioa lortzea; halaber, estrategia honen proiektu estrategikoetarikoa bi dira mugikortasun iraunkorra eta energia berriztagarrien erabilera. Era berean, azpimarratu beharra dago aldundiak direla Euskal AEn ingurumen gasturik handiena egiten duten herri administrazioak (2008an gastu osoaren % 31,3).

Udalen eremuan, agintaritzek gehien erabiltzen duten lanabesa *Toki Agenda 21* da; horren bitartez, eragile sozio-ekonomikoen inplikazioa bilatzeko asmoa dago udalerriko ingurumen eta gizarte arazoak identifikatzeko, baloratzeko, prebenitzeko eta zuzentzeko lanean. Udalerriek eta eskualdeek *Toki Ekintzen Plangintzak* sustatu eta garatu behar dituzte, horiek baitira Toki Agendak egituratzen dituztenak lortu beharreko helburuak eta aurrera eraman beharreko ekintzak tarteko.

2002tik Toki Agendak dinamizatzen eta bultzatzen dituen koordinazio bilgunea *Udalsarea 21* da, Iraunkortasunerantzko

Municipios hacia la Sostenibilidad, constituida por los departamentos de Medio Ambiente y de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco, la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, la Agencia Vasca del Agua URA y los municipios que cumplan con los siguientes requisitos: haber ratificado la Carta de Aalborg, disponer de un Diagnóstico de Sostenibilidad y de un Plan de Acción Plurianual aprobado por el pleno municipal y tener establecidos canales estables de participación ciudadana (hasta 2009 también eran miembros de esta red las Diputaciones Forales y la asociación de municipios vascos EUDEL). En lo que respecta a los municipios, es muy destacable el aumento de la participación municipal en el proceso de Agenda 21 Local. Si en 2002 eran 16 los municipios miembros de Udalsarea 21 (8 en Gipuzkoa, 5 en Bizkaia y 3 en Álava), entre 2000 y 2010, 239 municipios (95% del total de municipios vascos) estuvieron inmersos en procesos de la Agenda 21 Local, elaborando el Plan de Acción Local a través de los Udaltaldes 21 (el estadio previo a Udalsarea 21 en el que los municipios diseñan sus planes). Como resultado de este trabajo, 195 municipios eran miembros de Udalsarea 21 con su Plan de Acción aprobado en diciembre de 2011. De ellos, 100 se encontraban en proceso de evaluación y seguimiento de sus Planes, tras los cuales obtienen el Informe de Sostenibilidad Local que recoge el grado de avance de su Plan y la evolución de sus indicadores de sostenibilidad local.

Udalerrien Euskal Sarea; sarea hori osatzen dute Eusko Jaur-laritzaren Ingurumen, Osasun eta Kontsumo sailek, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, URA Uraren Euskal Agentziak eta ondorengo beharkizunak betetzen dituzten udalerriek: Aalborg-en gutuna berretsi dutenak, udalaren osoko bilkurak onetsitako Iraunkortasunari buruzko Diagnostikoa eta urte batzuetarako Ekintza Plangintza dutenak eta herritarrek parte hartzeko kanal egonkorak ezarri dituztenak (2009ra arte sare horren kide ere baziren foru aldundiak eta EUDEL euskal udalerrien elkartea). Udalerriei dagokienez, azpimarratzekoa da Toki Agenda 21en prozesuan udal partaidetza nabarmen handitu izana. 2002an 16 ziren Udalsarea 21 udalerrri kideak (8 Gipuzkoan, 5 Bizkaian eta 3 Araban), baina 2000tik 2010era bitartean 239 udalerrri (erkidegoko udalerrri guztien % 95) parte hartu zuten Toki Agenda 21en prozesuetan, Tokiko Ekintza Plangintza eginez Udaltalde 21en bitartez (hori Udalsarea 21en alde aurretiko azterlana zen, udalerriek beren plangintzak diseinatzeko). Lan horren emaitza gisa, 2011ko abenduan ekintza plangintza onetsita zeukaten 195 udalerrri ziren Udalsarea 21eko kide. Horietatik 100 ari ziren plangintzak ebaluatzeko eta jarraitzeko prozesuan; izan ere, horren ondoren udalerrien egitasmoen aurrerapen maila eta toki iraunkortasunari buruzko adierazleak jasotzen dituen Toki Iraunkortasunari buruzko Txostena eskuratu da.



### 3. DIAGNÓSTICO DE LA EVOLUCIÓN MEDIOAMBIENTAL EN LA C.A. DE EUSKADI

Las actividades productivas, económicas y de consumo de los seres humanos se traducen en un incremento continuado de la presión ejercida sobre los medios en los que se desarrolla nuestra vida diaria (aire, agua y suelo) y por eso resulta vital investigar y controlar la evolución de éstos y su estado actual. Para realizar adecuadamente este diagnóstico de la evolución medioambiental de la C.A. de Euskadi, se estima conveniente analizar el ritmo de consumo y la situación de los recursos naturales –agua, suelo, energía y materiales–, la diversidad biológica y los paisajes, así como la evolución de las principales emisiones contaminantes y generación de residuos a lo largo de los últimos años.

#### 3.1. Consumo de recursos naturales

El consumo de los recursos naturales es intrínseco a la actividad humana. El sistema socioeconómico depende de los flujos constantes de aire, agua, alimentos, materias primas y combustibles provenientes del medio ambiente. Pero este consumo tiene importantes repercusiones en el medio ambiente. A su vez, los límites de crecimiento del sistema son los límites de la capacidad de las fuentes ambientales para proveer ese flujo de recursos y energía.

A continuación se analiza el consumo actual de los recursos naturales vitales en la C.A. de Euskadi: la demanda consumitiva y aprovechamiento del agua, el uso de materiales –combustibles, minerales, electricidad, etc.–, los usos del suelo y el consumo de energía, tanto las cantidades consumidas como las principales razones que motivan dicho consumo. En general, cabe adelantar que el consumo responsable de los recursos naturales es uno de los elementos negativos en la evaluación de nuestro comportamiento medioambiental. Se mantienen las tendencias de consumo crecientes en términos absolutos, más allá de la ralentización producida en términos relativos, relacionada con la crisis económica.

##### 3.1.1. Agua

El agua es, además de un elemento esencial para todas las formas conocidas de vida, un recurso limitado y frágil que debe renovarse constantemente a través de las distintas fases del ciclo hidrológico. La fase terrestre del ciclo del agua tiene lugar en cada una de las cuencas hidrográficas, a través de los ecosistemas a los que da lugar. La disponibilidad y calidad del agua dependen por tanto de un complejo ciclo natural del funcionamiento del ciclo hidrológico y de los ecosistemas que lo conforman, en el que intervienen factores climáticos, territoriales y ecosistémicos. Esta disponibilidad de agua no debe bastar solamente para el abastecimiento humano sino que debe garantizar el caudal ecológico o caudal mínimo de un río para que éste tenga vida, con el objetivo de la conservación de la diversidad y de la dinámica de las comunidades biológicas en cada tramo fluvial. El estrés hídrico se produce cuando la demanda de agua supera la cantidad disponible o cuando la mala calidad del agua limita su uso. El uso que los humanos hacemos del agua puede ser privativo o común, es decir, excluyente o no de cualquier otro uso de agua simultáneo. Este uso puede también clasificarse como consuntivo o no consuntivo, si éste implica o no un consumo de un determinado volumen de agua en términos cuantitativos.

### 3. INGURUMEN BILAKAERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA EUSKAL AE-N

Gizakien ekoizpen, ekonomi eta kontsumo jardueren ondorioz, modu jarraituan handitzen da eguneroko gure bizitza garatzen deneko inguruneen gainean (airea, ura eta lurzorua) egiten den presioa; hori dela eta, garrantzi handikoa da ingurune horien bilakaera eta gaur egungo egoera ikertzea eta kontrolatzea. Euskal AEko ingurumen bilakaeraren diagnostiko egokia egiteko, egokituz jotzen da kontsumoaren eritimoa eta natur baliabideen egoera –ura, lurzorua, energia eta materialak–, dibertsitate biologikoa eta paisaiak aztertzea, bai eta ikertzea ere azken urteotako isurpen kutsagarri nagusien bilakaera eta hondakinen sorkuntza.

#### 3.1. Natur baliabideen kontsumoa

Natur baliabideen kontsumoa giza jardueraren berezko osagaietarikoa bat da. Sistema sozio-ekonomikoa ingurumenetik datozen airearen, uraren, elikagaien, lehengaien eta erregaien etengabeko fluxuen menpe dago. Baina kontsumo horrek eragin garrantzitsuak ditu ingurumenean. Aldi berean, sistemaren hazkundearen mugak baliabideen eta energiaren fluxu hori hornitzeko ingurumen iturrien gaitasunaren mugak dira.

Ondoren oinarritzko natur baliabideen gaur egungo kontsumoa aztertzen da Euskal AEn: uraren kontsumo eskaria eta aprobetxamendua, materialen erabilera –erregaiak, mineralak, elektrizitatea eta abar–, lurzoruaren erabilerak eta energiaren kontsumoa, bai kontsumitutako kopuruak bai kontsumo horiek eragiten dituzten arrazoi nagusiak. Oro har aurreratu beharra dago natur baliabideen kontsumo arduratsua elementu negatiboetarikoa bat dela gure ingurumen portaera ebaluatzean. Absolutuki goranzko kontsumo joerek bere horretan diraute, erlatiboki egon diren eta krisialdi ekonomikoarekin zerikusia duten moteltzeetatik harago.

##### 3.1.1. Ura

Ura oinarri-oinarritzko elementua da ezagutzen ditugun izaki bizidun guztientzat, baina, horrez gainera, baliabide mugatu eta hondakorra da, etengabe berritu beharrekoa ziklo hidrologikoaren fase desberdinen bitartez. Ur zikloaren lurreko fasea arro hidrografiko bakoitzean izaten da, hango ekosistemen bidez. Uraren eskuragarritasuna eta kalitatea, beraz, ziklo hidrologikoaren eta berori osatzen duten ekosistemen funtzionamenduaren natur ziklo konplexu baten menpe dago. Uraren eskuragarritasun horrek ez du bakarrik giza hornikuntza bermatu behar, baizik eta ibai baten emari ekologikoa edo gutxieneko emaria, ibaia bizirik egon dadin eta horrela dibertsitatea eta ibai tarte bakoitzaren komunitate biologikoen dinamikak kontserba daitezten. Estres hidrikoa sortzen da ur eskariak kopuru eskuragarria gaintzen duenean edo uraren kalitate txarrak bere erabilera mugatzen duenean. Gizakiek ura erabiltzeko daukagun modua pribatiboa edo komuna izan daiteke, hau da, aldi bereko beste ur kontsumo batetik kanpokoa edo ez. Erabilera hori ere sailka daiteke kontsumitzaile edo ez-kontsumitzaile gisa, betiere kuantitatiboki ur bolumen baten kontsumoa dakarren ala ez kontuan hartuta.

Los datos básicos sobre la caracterización y cuantificación de las demandas de agua en la C.A. de Euskadi provienen de un estudio elaborado por el Gobierno Vasco que definió las demandas de agua consuntiva y no consuntiva, sus características y tendencias y extrapolaba y comparaba datos entre zonas del territorio, con el fin de obtener conclusiones y definir posibles tendencias futuras (Gobierno Vasco, 2004). La estructura de las demandas evaluadas puso de manifiesto un tipo de sociedad predominantemente urbana (la demanda urbana supone un 75% de la demanda consuntiva, ver tabla 1). En esta demanda urbana en alta se distinguen dos conceptos: la demanda urbana en baja y los denominados *incontrolados*. En la demanda urbana en baja, el mayor consumo proviene del sector doméstico (58%), muy superior al de la industria urbana (19%) y al sector municipal (8%). También se computa el agua consumida por la ganadería urbana (2%) y el riego privado (0,5%). Los incontrolados hacen referencia a las pérdidas debidas a fugas, roturas y averías de las redes, consumos no contabilizados, tomas fraudulentas, etc. y suponen casi un 40% de la demanda urbana en alta. El hecho de que esta cifra sea tan elevada hace que la reducción de los incontrolados sea uno de los aspectos de la demanda de agua que requiere mayor atención. En cuanto a la demanda de agua no urbana, el sector industrial demanda un 15% de la demanda consuntiva (58 Hm<sup>3</sup>), el regadío agrícola un 9%, la ganadería rural un 0,4% y el golf un 0,1%.

A efectos de planificación hidrológica, el territorio de la C.A. de Euskadi está dividido en tres cuencas hidrográficas por las que fluyen las aguas hacia el mar: Cuenca Interna –que comprende la superficie de los ríos que discurren íntegramente por la C.A. de Euskadi–, Cuenca Norte –se incluyen las cuencas hidrográficas de los ríos Oria, Urumea, Bidasoa e Ibaizabal, Agüera y Karrantza– y Cuenca del Ebro o mediterránea –cuencas que vierten al mediterráneo–. Algo más de la mitad (52,8%) del agua para abastecer la demanda consuntiva proviene de las cuencas internas de la vertiente cantábrica.

Euskal AEko ur eskarien ezaugarriak eta kuantifikazioari buruzko oinarritzko datuak Eusko Jaurlaritzak egindako azterlan batetik atera dira; azterlan horretan eskari kontsumitzaile eta ez-kontsumitzailea definitu ziren, bai eta haren ezaugarriak eta joerak ere, eta lurraldearen eremuaren artean datuak erkatzen eta alderatzen zituen, ondorioak atera eta etorkizuneko joerak definitu nahian (Eusko Jaurlaritzak, 2004). Ebaluatutako eskarien egiturak agerian jarri zuen nagusiki hiri izaerako gizarte mota bat (hiri eskariak kontsumo eskariaren % 75 dira; ikus 1. taula). Gorantz doan hiri eskari horretan bi kontzeptu bereizi behar dira: hirialdeko behe kontsumoa eta *ez-kontrolatuak*. Hirialdeko behe eskariari dagokionez, kontsumorik handiena etxe sektoretik dator (% 58), hiri industriarena (% 19) eta udal sektorearena baino askoz handiagoa dena (% 8). Hiri abeltzaintzak kontsumitutako ura (% 2) eta ureztatzeko pribatua ere (% 0,5) zenbatzen dira. Ez-kontrolatuek men egiten diete hausturak, ihesak, matxurak, zenbatu gabeko kontsumoak, legez kanpoko hartuneak... direla-eta izaten diren galerei; horiek guztiak hirialdeko goi eskariaren % 340 izatera hel daiteke. Kopuru hori hain handia izateak berekin dakar ez-kontrolatuen murrizketa ur eskarian arretarik gehien jarri beharreko alderdietariko bat izatea. Hirikoa ez den ur eskariari dagokionez, industri sektoreak kontsumo eskariaren % 15 eskatzen du (58 Hm<sup>3</sup>), nekazaritzako ureztatzeko % 9, landa eremuetako abeltzaintza % 0,4 eta golfak % 0,1.

Planifikazio hidrológicoaren ondorioetarako, Euskal AE hiru arro hidrografikoren arabera banatuta dago eta urak horietatik abiatzen dira itsasora: barnealdeko arroa (horren barruan Euskal AEtik oso-osorik igarotzen diren ibaien azalera dago), iparraldeko arroa (bere barnean hartzen ditu Oria, Urumea, Bidasoa eta Ibaizabal, Agüera eta Karrantza ibaietako arro hidrografikoak) eta Ebroko edo Mediterráneo aldeko arroa (urak Mediterráneoora botatzen dituena). Kontsumo eskaria hornitzeko uraren erdia baino gehiago (% 52,8) isurialde kantauriarren barneko arroetatik dator.

Demanda consuntiva de agua en la C.A. de Euskadi (Hm<sup>3</sup>). 2001

1

Uraren kontsumo eskaria Euskal AEn (Hm<sup>3</sup>). 2001ean

	Mediterraneoko arroa Cuenca Mediterránea	Iparraldeko arroa Cuenca Norte	Barne arroak Cuencas Internas	Guztira Total
<b>1. Hirialdeko goi eskaria / Demanda urbana en alta</b>	38,5	61,2	188,2	<b>287,9</b>
<b>1.1. Hirialdeko behe eskaria / Urbana en baja</b>	24,4	36,3	113,0	<b>173,6</b>
<b>1.1.1. Etxekoa / Doméstica</b>	12,5	21,6	66,3	<b>100,4</b>
<b>1.1.2. Merkataritza / Comercial</b>	3,4	3,2	14,1	<b>20,7</b>
<b>1.1.3. Industria / Industrial</b>	4,0	7,4	21,7	<b>33,0</b>
<b>1.1.4. Udal eskaria / Municipal</b>	3,2	2,4	9,1	<b>14,7</b>
<b>1.1.5. Ureztatzeko pribatua / Riego privado</b>	0,8	0,1	0,1	<b>0,9</b>
<b>1.1.6. Hirialdeko abeltzaintza / Ganadería urbana</b>	0,5	1,7	1,8	<b>3,9</b>
<b>1.2. Ez-kontrolatuak / Incontrolados</b>	14,1	24,9	75,2	<b>114,3</b>
<b>2. Hirikoa ez den eskaria / Demanda no urbana</b>	41,9	39,0	13,9	<b>94,8</b>
<b>2.1. Euren hartuneko industrial / Industrial de toma propia</b>	6,0	38,7	13,4	<b>58,1</b>
<b>2.2. Nekazaritzako ureztatzeko / Regadío agrícola</b>	34,9	0,0	0,0	<b>34,9</b>
<b>2.3. Golfa / Golf</b>	0,0	0,0	0,2	<b>0,2</b>
<b>2.4. Landa eremuko abeltzaintza / Ganadería rural</b>	1,0	0,3	0,3	<b>1,6</b>
<b>Guztira / Total</b>	<b>80,4</b>	<b>100,2</b>	<b>202,1</b>	<b>382,7</b>

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Fuente: Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
<b>Goi eskaria / Demanda en alta</b>	265,0	273,2	261,0	243,8	235,6	231,5	216,8	231,8	239,9

**Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.**

Fuente: Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

